

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Inbertsioa eta konfiantza-ri buruzko enpresako zuzendaritza-kideen jardunaldi bati itxiera eman dio Nafarroan

Miranda lehendakariordeak eta Goicoechea kontseilariak Erkidegoaren egoera ekonomikoari buruzko eta inbertsioko aukerei buruzko txostenak aurkeztu dituzte

Viernes, 02 de marzo de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak [Zuzendaritza Aurrerapeneko Elkarteak](#) antolatutako jardunaldi bati itxiera eman dio gaur Iruñean. Jardunaldia ['Nafarroa krisitik irtetea. Inbertsioa eta bultzada bultzada berri baterako'](#).

Jardunaldian parte hartu dute, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari Álvaro Mirandak eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoecheak; biek ala biek Nafarroako egoera ekonomikoari buruzko eta industria nahiz enpleguari buruzko txostenak aurkeztu dituzte, hurrenez hurren.

Barcina Lehendakariak bere diskurtsoan konfiantza-mezu bat jaurti du: "Ziur nago erabat krisi honetatik sendotuta aterako garela; izan ere, aurreko belaunaldiei landa-giroko Nafarroa eta Nafarroa emigratzailea gaurko industrializatutako lur ahaltzu eta harrera-lur bihurtzen lagundu zien aukerei eusten diegu"

Lehendakariak aste honetako bi albiteren berri eman du eta enplegua sortzen lagunduko dutenak: alde batetik, Volkswagen lantegian pintura-planta berri bat eraikitzen hasiko direla, eta bestetik, sinatu den hitzarmenari esker, kredituko zazpi erakundek Inbertsioen Europako Bankuak emandako finantzaketa enpresa txiki eta ertainetara eraman ahal izango direla; bere Gobernuak une hauetan garrantzitsutzat jotzen dituen politikak ere azpimarratu ditu: gastua kontrolatzeko ahalegina eta defizitaren kontrola; Ikerketa eta Garapenaren aldeko apustua; Nafarroako neurri fiskalen berezitasuna gobernu zentralarenekin bat etorri eta



Nafarroako Gobernuko Lehendakaria,
Yolanda Barcina

enplegua sortzeko laguntza-neurriak.

Nafarroako ekonomia eta defizita

Miranda lehendakariordeak bere txostenean [Nafarroako ekonomiaren egoera](#) azaldu du. Hark esan du "2007an krisia hasi zenetik igaro diren lau urte horietatik urte batean besterik ez duela atzera egin", eta nabarmendu du "Nafarroa ekonomia nazionalarekin alderatuz % 1a baino gehiago urrundu dela BPGaren bilakaeran eta urtero. Krisi ekonomikoaren urteetan Nafarroako kanpoko sektoreak, kanpo-eskariak, txanda hartu du era sendoan, jarraian eta fidagarrian", Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko titularrak azaldu duenez.

Estatuko defizitaren inguruan ere hitz egin du: "2011a galdutako urtea izan da Espainiako defizitaren bateratasunerako. Guztion artean iaz etxeko lanak egin izan bagenu, 2013an % 3ko defizitaren helburua bateratzeko egiteko geratzen zitzaigun ahalegina, hau da, bi urtetan, 32.000 milioi bat eurokoa izango zen, ziur asko onargarria izango zena; orain ahalegin hori bikoiztu egin da eta 58.000 milioi eurokoa behar du", azaldu du Miranda kontseilariak. Bere agerraldia honako hitz hauekin amaitu du: "Gure herrialdeko benetako egiturazko erreformak abian jartzea, eta beraz baita Nafarroan ere, ez da lan erraza izango eta, horien artean kudeaketa zuhurra eta kontrolatua dago, baina zaila da beste bide bat dagoela erakustea; izan ere, beste bideak esperimentatu dira eta gaur egun gauden lekura eraman gaituzte".

Puntako sektoreak eta aukerak

Bere diskurtsoan, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoecheak Nafarroak zenbait sektoretan duen leku nagusia [azaldu](#) du: elikagaien nekazaritzan, automobilgintzan, energia berriztagarrietan eta bio-farmazeutikoan. Sektore horiek "giltzak dira ezagutzaren garapenari, ikerketari eta teknologia berriei lotuta, eta beren alderdi ezberdinetan Nafarroaren etorkizuna seinalatuko dute". Goicoecheak une hauetan elikagaien nekazaritzaren sektoreak ematen duen laguntzari aipamen berezia egin dio eta Nafarroaren etorkizuneko ekonomian izan behar duen pisua; izan ere, "duen balio ekonomikoaz gain, gure lurraldea antolatzen laguntzen du eta enplegua deslokalizatzeko arrisku txikiagoa du". Garapen-esparru horiek [Moderna Plan](#)ak diseinatutako estrategiarekin bat datoz; plan horrek Nafarroako ekonomiak aurrera egiteko ildoak eta sektore estrategikoak adierazten ditu. Kontseilariak aipatu duenez, plan hori "gure enpresa-sarea dibertsifikatzen saiatzeko da eta indartsuak garen horretan are indartsuagoak egiten saiatzeko da".

Azkenik, Goicoechea kontseilariak Nafarroako Gobernuak inbertsioko proiektuak bideratzeko eskaintzen dituen tresnen berri eman du, eta [4.600 lanpostu sortu nahi dituen enplegua sustatzeko](#) hartutako neurriei buruz hitz egin du. Inbertsio berriak sustatzeko enpresen zerbitzura jarritako finantzaketa-zubiak ere aipatu ditu, eta [Sodena](#), [CEIN](#), [Nafarroako Enplegu Zerbitzua](#) edo Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren beraren bidez bideratzen direnak.